

M 8 MANIFESTUA

Emakumeen Nazioarteko Egunean, gogorazi nahi dugu aurten COMFINek, Berdintasunaren aldeko Emakumeen eta/edo Feministen Erakundeen Koordinakundeak (41 elkartek osatzen dute) Berdinna Saria jaso duela Nafarroako Gobernuaren eskutik, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko egindako lana aitortzeko, elkarteetan eta tokiko guneetan, Foru Komunitateko lurralde osoan eraginez.

Eta horrelako urte batean, udal, autonomia eta estatu mailako hauteskundeetan, inoiz baino agerikoagoa izango da gure presentzia emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako politika publikoak eskatzen.

Horregatik, gure proposamen feministak talde politikoei helarazi dizkiegu, hauteskunde-programetan kontuan har ditzaten. Hauek dira erabaki politikoak hartuko dituztenei eman dizkiegun proposamenetako batzuk.

COMFINek HAU EZKATZEN DU:

- Emakumeen eta gizonen arteko oreka talde politikoetako hautagaitza guztietan, % 50ean emakumeak buru direla.
- Parekotasuna gobernu-organoetan eta goi-administrazio organoetan, eta parekotasuna, halaber, hauteskunde-osteko karguen banaketan: alkatetzak, gobernu-batzordeak, zinegotzi delegatuak eta zerbitzu-zuzendaritzak.
- Baliabideen zorro publikoa handitzea eta enplegu publikoa handitzea zainketen sektorean.
- 0-3 urteko hezkuntza, unibertsala, publikoa eta doakoa.
- Soldata- eta pentsio-arraila murrizteko politika sozial eta ekonomikoak indartzea, eta lanaldi partzialeko biztanleria okupatuan pobrezia eta genero-arrakala feminizatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legea betetzea, Ekintza Plana eta Hezkuntza, Osasun, Justizia eta Herrizaingo, eta Enplegu, Gizarteratze eta Etxebizitza arloetako plan sektorialak ezarrita.
- Berdintasun-politiken eta genero-indarkeriako egoeren jarraipena eta ebaluazioa egiteko behatokia sortzea.
- Emakumeek landa-eremuan egiten duten ekarpenari balioa ematea, garapenerako eta gizarte-ongizaterako eragile gisa.
- Emakumeen elkarte-sarea ahalduntzearen, kohesioaren eta agenda politikoan duen eraginaren aldeko apustua.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legea betetzea, Nafarroako toki entitateei buruzko artikuluan, udal eremu guztietan desberdintasunak eta diskriminazioak desagerraraziko dituzten politikak gara ditzaten eta emakumeen elkarteei eta talde feministei laguntza eman diezaieten, berdintasun-politikak eta horien zeharkakotasuna lantzen, garatzen eta ebaluatzen parte har dezaten.

ELKARTUTA INDARTSUAGOAK GARA